

**SAGRARIO ALEMAN ASTITZ  
EUSKALTZAIN BERRIAREN  
SARRERA-HITZALDIA**

*Etxaleku, 2008-V-31*



## ONGIETORRIA

*Maria Antonia Iribarren,  
Imozko alkatea*

Ongi etorri Euskaltzaindiko kide guztiak, udaletako ordezkariak eta gainerako erakunde eta lagunak.

Sagrario Aleman Euskaltzaindira sartzen dela ospatzeko bildu gara hemen, Etxalekun, Imotzen.

Sagrariok bere jaioterrian ospatu nahi izan du. Herri honek bizirik eduki du bere hizkuntza, eta belaunaldiz-belaunaldi pasatu da, etenik gabe, guraso-enganetik seme-alabengana, baita Sagrarioren gaztaroko urte zailetan ere.

Sagrario euskaltzale fidel eta sutua izan da, euskararen zabalkuntzaren eta osasunaren alde egin duena, bere eginez Euskaltzaindiaren beraren leloa: «ekin eta jarrai».

Euskaltzain oso izendatze hau urtetan euskararen alde egin duen lanaren errekonozimendua da. Hori dela-eta, harro gaude Imozko herritar guztiok, gure hizkuntza maite baitugu. Maite dugu, bai, eta horregatik haren aldeko konpromisoa berritzen dugu, ikertu eta hobetu dadin, eta arlo guztietan dagokion tokia eman diezaion (hezkuntzan eta erakunde publikoetan).

Zorionak, Sagrario.



## AGURRA

*Andres Urrutia,  
euskaltzainburua*

Agintariok,  
euskaltzainkideok,  
herritarrok,  
Sagrario Alemanen etxeko eta senideok.

Egun on guztioi.

Imoz ibarreko Etxaleku herrira etorri da lehenengoz Euskaltzaindia. Ez, ordea, euskaltzainak, Antonio Arrue eta Aingeru Irigarai hain zuzen ere, euskaltzain oso zirenak, hona iritsi baitziren 1959. urtean, Nafarroako Diputazioaren eskutik, euskara sustatzeko eta biziberritzeko asmoz.

Orduko ekitaldiaren lekuko dugu egun Euskaltzaindiaren sarrera-ekitaldia eginen duen Sagrario Aleman etxalekuarra. Orduko hartan haur euskaldun zena, egun irakasle prestu eta trebea dugu, euskara sustatzeko eta biziberritzeko asmo hura ezin egokiago betetzen duena euskararen irakaskuntzaren bidez.

Zinez aberasgarria da Sagrarioaren ahotik hainbat esaera, esamolde eta esateko modu entzutea, zorrotz bateratzen baitira bere esan eta erranetan euskararen tradizio herritarra eta egungo eskakizun linguistikoak.

Askotan aipatzen da gure artean euskararen naturaltasuna, berezkotasuna, euskarak modurik naturalenean gure ezpainetara etorri behar duela azpimarratuz.

Bego hori. Esan dezadan, alabaina, Sagrario Alemanek bermatzen dituela bere ekinean Euskaltzaindiarentzat ezinbestekoak direnak: bateko, euskararen aldetik, oinarri sendoa, betikoa, ekialdeko doinu erakargarria eta gogo irmoa, emakumearen ahots eta aldarte taxuzkoak moldatua; eta besteko, euskara bera, gure nortasun- eta komunikazio-tresna izan dadin ahaleginean barruratua.

Sagrario Alemanek eskarmentu luzea du euskalgintzan; askoz luzeagoa, hala ere, bere maisutasuna euskararen transmisioa bermatzen Nafarroan. Esan gabe doa, Sagrario Aleman bera eta beraren modukoak behar ditugula gure hizkuntzaren bizirautea bermatu nahi badugu.

Datorrela, hortaz, Sagrario Aleman gure artera, sarrera-hitzaldia egin dezan eta entzun ditzagun, arreta osoz, haren hitzak, berak duela mende erdi, hemen, bere sorterrian, beste bi euskaltzain haien esanak entzun zituen moduan.

Sagrario dugu gaur euskaltzain oso, eta gu, euskaltzaleok, entzule adigurratsu.

## **BERDETIK HORIRA**

### **Sarrera-hitzaldia**

*Sagrario Aleman Astiz*

Alkate andrea,  
Euskaltzainburu jauna,  
agintariak,  
euskaltzainak,  
etxeokak,  
jaun-andreak,  
egun on.

Ohitura da sarrera hitzaldian bi atal egitea. Lehenean, aurretik aulki hori zuenaren gorazarrea egiten du euskaltzain berriak, bigarren atalean nork berak egoki deritzon gaia azaltzen du, betiere, euskararekin lotura duena.

Hogeita zazpigarren aulki hau, aurretik ez zuen inork, Euskaltzaindiak, berriki arte, hogeita hamar ez, baizik eta hogeita lau euskaltzain besterik ez baitzuen, ez dagokit bada, aurrekoaren gorazarrea egitea. Hala ere, bi atal eginen ditut. Lehenean Etxalekuz, euskara eman didan herriaz, eta transmisioaz ariko naiz. Bigarrenean berriz, helduen euskalduntzeaz, ardatz gisa IKAKo Arturo Campion euskaltegia harturik.

### **ETXALEKU. TRANSMISIOA**

Imotz udalerrian dugu Etxaleku. Mugako herria hizkuntzari dagokiola, izan ere, nire gaztaroan, Imozko Eraso, Oskotz, Latasa eta Urritza edo Basaburuko Ihaben, Udabe, Beramendi eta beste zenbait erdalduntzat genituen, bertan jende asko euskalduna izan arren. Muskitz, Zarrantz, Golaratz eta Etxaleku berriz, Imozko herri euskaldunak ziren. Gaur askoz zailagoa da horrelako bereizkuntzarik egitea, lehen euskaldun deitzen genituen horietan erdararen indarra askoz handiagoa delako eta euskara ez dakitenen kopurua txikiagoa herri erdaldunak deitzen genituen horietan. Hala ere, gaur, Imotz Nafarroako Euskararen Legearen arabera mugan dago, euskal eremuak eta mistoak hemen egiten dute muga. [x] eta [j] ere hemen elkartzen dira, herri batean bata, ondokoan bestea, erabiltzen dugu. *Esan* eta *erranekin* gauza bera dugu. Horretatik hartu du izena he-

mengo irriatiak, *Esan-erran*. 1958 eta 59an, Jose Manuel Lasarte eta Sagrario Navarro mintzatzen zitzaizkigun *Berueteko radioa* isildu eta, urte luzez, deus gabe egon ondoren, 1998an sortu zen *Esan-erran* irratia.

Inguruko herri askotan haurrak erdaraz hasi ziren berrogeiko hamarkadan, Etxalekun berriz, euskaraz bizi ginen, euskaraz pentsatzen, sentitzen, mintzatzeten eta jostatzen ginen, euskara zen gure hizkuntza, herritarren arteko harremanak eta komunikazioa euskaraz ziren, eskolako hizkuntza erdara bazen ere. Horixe zen gaztelania, eskolako hizkuntza eta euskaraz ez zekiten erdaldunekin aritzeko balio zuena. Etxalekura etortzen ziren familia erdaldunetako umeez euskaraz agudo ikasten zuten, karrikan ez baitzuten besterik entzuten, transmisio bikaina egiten zuten herritarrek.

Hori zen hain zuzen, herri euskaldunen eta besteen arteko aldea, herri euskaldunetan, etxeko, karrikako eta elizako hizkuntza euskara zela, elizan latinarekin batean jakina, eta besteetan berriz, erdara. Erdaldun izendatzen ditugun hauetako zenbaitetan apezak elizan erdaraz hasi ziren ez dakigu zein Jainkoren izenean; gurasoek seme-alabei ez zieten euskararik irakasten etxe askotan, «guk sufritu duguna sufriri ez dezaten» zioten gizonezko askok, beren soldadutza garaia gogoan; eskolako ikasketak ongi egiteko, zailtasunik gabe, euskara jakitea oztopotzat zeukaten frankok, maistra-maistruek horrela esanik. Garai horretakoa da Muskizko eskolan gertatua. Eskoletara, ez dakit urtean behin edo, inspektorea etortzen zen, emakume zorrotza zen hura, haurrak ez ezik maisuak ere arras beldurtzen zituen. Etorri da, bada, Muskitza, eta bertako mutiko bati galdera bat egin dio, eta honek beldurra edo dena delakorengatik ez du erantzuten asmatu. Maistrak, aitzakiaren bat behar bere burua zuritzeko eta, *badakizu euskalduna da eta...* Euskara jakitea beste edozer ikasteko traba balitz bezala. Gure aita zena, udaleko idazkaria, han izaki ordea, eta idazkariak ongi ezagutzen haur guztiak, zein zen euskalduna eta zein ez. Eta hara zer entzuten duen, Muskitzen euskaraz ez zekien haur bakarria euskalduna zela! Zergatik euskalduna eta, zekien hizkuntza bakarrean inspektore andreak galdetutakoa ez erantzuteagatik.

Euskarak prestigiorik ez zuen, eta euskaldunak gutxietsiak ziren, beraz, ez da harritzekoa herri askotan euskarak atzeraka egitea. Gurasoek, erdizka zekiten gaztelania besterik ez zieten transmititzen beren seme-alabei, eta haur hauek, euskara jakinki ez eta etxean euskaraz aritzen zirenek baino gaztelera kaxkarragoa zuten maiz.

Prestigioa ematearren, eta herri askotan gertatzen ari zena geldiarazi nahian, *Principe de Vianako Sección de Fomento del Euskera* zelakoak hainbat herritan bestak egin zituen eta euskaraz zekiten haurrei sariak ematen zizkien. Etxalekun, 1959ko maiatzaren 17an izan zen, Mendekoste egunean, goizean elizan elkartu zen jendea. Probidentziak hala ekarrita, Euskal Herriaren eta euskaldunen zaindaria den San Migelen irudia ere Etxalekun omen zen euskara sustatzen. Pentsa sein den euskalduna San Migel, Iruñean berean ere, urtez urte, oraindik ere, euskaraz kantatzen baitu jendeak bera iristean.



Etxalekuko bestara itzuliz, elizan bildurik zeudenek elizatik plazarako bidea egin zuten agintari eta txistulariak aurrean zituztela. Plazan, Imozko jendeaz gain, Basaburua, Atetz eta Ultzamatik etorritakoak ere elkartu ziren. San Antonio Eskolaniaren kanten ondoren, Aingeru Irigarai euskaltzainak, gero ariko ziren Mitxelena eta Uztapide bertsolariak eta hizlari nagusia, Arrue euskaltzain jauna, aurkeztu zituen. Eta jakina, bertako hizkuntza galtzen ez uzteko erregua egin zigun eta gazteak, gonbidatu zituen garai bateko bertako bertsolariak izan ziren Oskozko Erdabide, Goldarazko Andres Astitz eta Ziako Txantxoren bidea jarrai zezaten.

Arruek, gure arbasoen ondareak gordetzen saiatzen garen gisara, euskara gordetzeko eskatu zigun, ondare hau arrazoi handiagoz gainera, besteak ez bezala, bizia delakoz. Gure zabarkeriaz galtzen uztea lotsaemangarria litzateke, euskara interes eta mirespenez ikusten duten herri kultuen aurrean. Hauek ez dira, hala ere, arrazoi nagusiak euskarari eusteko. Gure hizkuntza da, eta hori da eusteko arrazoi nagusia. Hizkuntza honetan transmititu ziguten gure aurrekoek beren nortasuna, kultura eta hezkuntza, eta geure izaera ere eman digute hizkuntzarekin batean. Hau da gure hizkuntza. Hori gara gu. Geure hizkuntza da geure gogoaren adierazpiderik egoki eta bidezkoena. Beharrezkoa da, bada, guztion ahalegina euskarak duen balioa berreskuratzeko. Horrela aritu zitzai-gun Arrue euskaltzaina.

Hitzaldia bukatuta, aurki ere, haurrek benetan itxaroten zuten ueña ailatxi zen, sarien ueña. Gozokiak, eta 50 pezeta zituen kartila bana haur bakoitzari *Caja de Ahorros de Navarra*. Hura zen hura kontentua! Eta hara zer diren



gauzak, berriki, eskola ematen ari nintzen batean, gauza hauetaz ari ginelarik, ikasle batek, Fernando Gartzia, esan zidan bera izan zela Kutxaren izenean kartila haiek banatzen herri honetan, orduan ez bezala, orain euskaraz ari den Fernando.

Besta horren berri izateko, nire adin ttikiak edota oroimen kaxkarrak lagundu ez eta, egunkarietara jo dut eta bertan irakurri dut, Paz Ziganda eta Maria Puy Ruiz de Alda andreak ere, Iruñetik etorriak, gure artean izan zirela.

Hiruretan hogeiko hamarkada ere aurrekoaren antzekoa izan zen herri ttiki hauetan, erdaraz hasiak eta haziak ziren haietan, erdaraz segitu zuten, eta euskaldun iraun zuten besteek. Hiruretan hogeita hamarrekotan, gauzak okerre-ra egin zuten, eskolak elkartu egin zituzten eta haurrak beren herrietatik atera eta giro eta herri euskaldunetatik lekutu. Haur euskaldunak gutxiengo ziren komunitate horietan, eskola handi horietan, eta bertako hizkuntza bakarra, hor, erdara zen, euskarak ez zuen tokirik. Imozko haurrak, bertako jende askoren iritzien kontra, Irurtzunen, arras bizimolde diferentea zuen herri kozkorrean bildu zituzten 1976an, herriko helduengandik arras aparte hainbeste orduz, transmisioaren etena handituz. Erdaraz ari zen Irurtzunen, 736 ikasle eta 26 irakasleko herria osatu zuten eskolan. Horietatik, 65 besterik ez Imozkoak.

Zorionez, 1985eko Lege zirriborroan ez bezala, 1986ko Euskararen Legeak eremu euskaldunean sartu zituen Imotz eta Arakil, Irurtzun eta bertako eskola barne, jakina. Ondorioz, aurretik, 1979an, ezarritako D eredia indartuz joan zen eta Imozko ume gehientsuenak geroztik eredu horretan aritu dira.

Imotzen euskaldunen kopururik ttikiena, ehunekotan, 96an izan zen, eta ez dirudi horretatik goiti egin dugunik, 1991tik 1996ra 8 puntuko galera izan zen; egia da, aurreko bost urteetan ehuneko lau egin zuela goiti. Hiruretatik bi gara euskaldun, nonbait. Basaburuak ere 1991tik 1996ra galera handixkoa izan zuen, eta geroztik goiti egin du zerbait, ehuneko 83 da euskalduna 2001eko eroldaren arabera.

Euskaltzaindiaren Jagon bilduman Gros y Lladósek, argitaratu berri duen *Recuperación del Euskera en Navarra* liburuan, etorkizunerako egiten duen aurreikuspenean dio, hamarkada gutxian euskararen erabateko galera zekarren maldan beharago joera hori geldiarazi dela, joera hori irauli dela. Hori esateko, 1991 eta 2001a bitartean, euskara dakitenean adin tartek hartu ditu kontuan. Horrela, 15 urtetik behehitiko ehuneko 72,4k zekien euskaraz 1991an, Imotzen, eta 2001ean berriz, 77,4k, eta 15 urtetik 25 urte bitartekoetan, 39,6tik 62,5era pasatu zen euskaldunen ehunekoa. Basaburuan, 88,5etik 94,2ra eta 67,5etik 91,1era, hurrenez hurren.

Grosek mendebaldeko ibarrak deitzen dituen hauetan, *-Araitz, Larraun, Betelu, Basaburu, Imotz eta Lekunberri-*, 2001ean, populazioaren ehuneko 80,3k dio euskara badakiela eta urte berean, haurren ehuneko 91,5 da euskalduna. Ibilbide horrek etorkizun itxaropentsua dakar, dudarik gabe. Datuak hor

dira, euskararen berreskuratzean egindako lana ere bai, tartean eskolak, garai bateko erdalduntze lanaren norantza kontrara eginez, beste neurri eta moldez, jakina. Orainari eta egunekoari begiratzen diot nonbait etorkizunari bezainbat. Nondik gatozen ikasi, nora irits gintezkeen aztertu, erdietsi nahi dugun horrekin amets egin, eta oraingoa bizi. Etorkizunean ehuneko ehun euskalduna liteke inguru honetako populazioa.

Noiz eta zenbateko populazioa izanen ote da? 1935ean, Etxalekun, 272 lagun bizi ziren, horietatik, 20 urtetik beheitikoak, denak euskaldunak, 138 ziren, hau da, populazioaren erdia, (15etik beheitikoak 112, %41 Etxalekun) eta Imotzen %43 (1.112tik 482lagun, 15etik beheitikoak 383, hau da, %34). 65 urtetik goitikoak berriz, 9 lagun besterik ez zen Etxalekun. Imotzen 1.112tik 58, ehuneko bost, hortxe-hortxe. Nork usteko zuen orduan, berrogeita hamar urte geroago, 1986an, Imotz ez zela Etxaleku halako bi ere izanen? Hauek ditugu 1986ko datuak: 439 bizilagun, 15urtetik beheitikoak %15 eskas, 20tik beheitikoak %21 eta 65etik goitikoak %18.

Populazio tikiagoa, beti behera. Inguru honetan beren xokoa edota maitea aurkitu eta kanpotik heldu diren asko, erdaldunak, Etxalekun betiere, euskaldunak joan eta erdaldunak etorri. Erdaldun elebakarren kopurua absolutuan ez ezik, ehunekotan ere goraka eta populazioa berriz, ttikitzen eta zahartzen. Jendea zaharrago eta etxekoiago, karrikak hutsago, herria motelago eta totelago, jenderik ez, hitzik ez, esan genezake. Autonomia ere gero eta tikiagoa du herriak, lana, erosketak, ikasketak, jostaketa, aisialdia dena kanpoan egin behar. Eta hori dena erdalduna den Pamplona handian egin behar, Iruñea aurkitzea kostatzen baita maiz.

Etxalekura bizitzera etortzen ziren haur erdaldun guztiek ikasten zuten euskaraz gure haurtzaroan; euskara ikasten ari zen heldu zenbait ere etorri izan da hona maila hobetu nahian eta mintzatzeko erraztasuna erdiestearren. Orain, zailago lukete frankoz ere, arestian aipatu arrazoiengatik. Eskolako hizkuntza da euskara, ez ordea jostaketakoa. Eta eskolan ez da mintzamina askorik lantzen, ikasleak ikastetxeko patio eta atarrietan erdaraz entzutea ez da batere harrigarria. Eta herrian ere, ez ote dira erdaraz errazago aritzen beraien artean? Eta euskara ez dakien haurren bat hurbiltzen bazaie inolako eragozpenik gabe eta ohartu ere gabe pasatuko dira gaztelaniaz mintzatzera. Etxalekuko populazioa ttikia eta zaharra izanik, jende gutxi dabil karrikan eta nonahi ere; gainera, euskara ez dakitenak ere badira. Elkarrizketa asko ez entzuteaz gain, hauetako zenbait erdaraz izanen da, gainera. Txillardegiren azterketa matematikoa erabil genezake Etxalekun zenbatetan gertatuko den hori, aztertzeke; orain nire asmoa ez da ordea, kalkulu horren egitea. Baina, argi esan dezakegu herriak, nahiago bada herritarrek, transmisio ahalmen tikiagoa dutela.

Elkarrizketa gehienak, oraindik ere, euskaraz egiten direla eta, herri euskalduntzat jo dezakegu Etxaleku? Adiskide baten ustean oso inportantea omen da herri euskaldunak izatea Nafarroan, diren ttikienak izanik ere.

1992an inauguratu zen Imozko Udaletxea. Besta hartara, nola ez, Nafarroako Gobernuko ordezkariarik etorri zen. Egunak, 1959an egindako euskararen bestaren antzekotasunik izan zuen, egitarauan, meza, agintarien eta herri-tarren ibilbidea edo segizioa, hitzaldiak, bertsolariak... Eta dena euskaraz egin zen, egun hartan bezalaxe, udaletxearen bedeinkazioa barne. Dena ez, Gobernuaren bedeinkazioa erdaraz izan zen, Gobernuko ordezkariak euskaraz ez baitzekien eta nonbait inor ez zen ohartu euskal eremura zetorrela eta inork ez zion hitzalditxo euskaraz prestatu. Ordezkaria ordea, hemen, ohartu zen non zegoen eta bere hitzaldia horrela hasi zuen: *Vascos, Navarros todos...* Badakigu Nafarroan *vasco* euskaraz ari denari esaten zaiola. Etxaleku herri euskalduna da? 1992an erantzuna, bisitan etorri zitzaigun Nafarroako Gobernuko ordezkariak berak eman zigun.

Transmisioa ez da etxean bakarrik egiten, herriak ere egiten du. Lehen guztiengandik ikasten genuen, haurren batek *zun attei ikus diot* esaten bazuen, hagitz agudo erantzunen zuen helduren batek *ze ikus diozu ba?* Edota *juankoa eskurtsioa?* aditzen bazuen baten batek, zerbait esanen zuen berehala. Joanen edo *juain* esan beharrean *juanko* esatea itsusia ez ezik, haurkeria ere baitzen eta gaur ere halakoxetzat daukagu, haurren hizkera kaxkartzat.

Hiruretan hogeita hamarreko hamarkadan, herrian, transmisioa makaltzen hasi zen, esan bezala, haurrak herritik kanpo ordu luzez egoten ziren, gurasoren batzuek euskaraz ez zekiten, erdararen presentzia handiagoa zen komunikabideak zirela eta, batez ere telebista zela eta, Euskal Telebista hogeigarren mende hondarra arte ez zen ikusterik izan hemen. Telebistak etxe guztietan edo ia guztietan izan baitzuen sarrera, horratx, erdara sukalderraino sartua inoren baimen berezirik gabe eta ausardia osoz. Belaunaldien arteko harremana etena, edo etena ez bazen, ahuldua bai, betiere. Hau nabaria da hizkeran.

Hamarkada horrez geroztik sortutakoek Etxalekun erabiltzen diren hainbat hitz ez dituzte inoiz erabiltzen, eta beste asko ez erabiltzeaz gain, ez dituzte ezagutzen. Eta guk, helduagook ere, gero eta gutxiago erabiltzen ditugu, gazteek eskolan ikasitakoa eta telebistan entzuten duguna, nahitaez, gurea baino hobea delakoan. Eta berriki arte esaten genituen hitzak inongo hiztegitan baztertuak utzi ditugu.

Kanpokoari ederresteko eta etxekoa zokoratzeko eta gutxiesteko joera ez dugu oraingoa halere, lehen ere ongi irakatsi ziguten euskararik hoberena Tolosakoa dela.

Gure euskara kaxkarra zela eta zenbatetan ez ote dugu Etxalekun, *det* erabili kanpotarren aurrean, gure arteko *dut* erabili ordez, baita batuan *dut* onartu eta gero ere. *Ondo* eta *hobeto* bikotea *ongi* eta *hobeki*-ri gain hartzen ari da. Ez da inor *jostatzen*, orain, denak, *jolastu* egiten dira. Aldaketa hauek ez dira hemen bakarrik izan, oso hedatuak daude, hango eta hemengo kirolariak berak ere *jolastu* egiten dira eta *jokatu* gabe irabazi nahi izaten dute gainera. Esan bezala, zuzentasunaren izenean eta euskara batuaren aitzakian,

batuan horrela izan gabe gainera askotan, nonahi egiten dira aldaketa hauek, eta euskararen indarra galtzen ari den herrietan errazago, bertako hitzek laster uzten baitiete tokia eskola edo komunikabideetan aditzen dituzten beste hauei. Aldi berean, harrigarriki, hedadura ttikia duten zenbait hitz oso barneratuak ditugu eta horiek erabiltzen ditugu: *kisuskile* (*igeltsua* baino nahiago *kisua*), *oren bata* beste guztiak orduak badira ere, ez gara erortzen *bota* baizik, *ailatxi* (*iritsi* oraindik ez da *ailatxi*), *ortotsa* (*trumoi* hotsik ez da oraingoz gehiegi aditzen), *hitz egiteaz* landa *jolasa* ere egiten dugu. *Deus, ebatsi, ixiki (izeki), agudo, atije, ortzi...*

*Ortzi*, Etxalekun beste inon entzun ez dudan hitza adiera horrekin, arras agerian dugu, ez zaigu *ezkutatu*, estetika kontua ote da? Niri behinik behin, askoz politagoa zait *ortzi*, *ezkutatu* baino. Jostaketa pare batean ere agertzen zaigu *ortzi* hitza. *Zirik ortzitzen* lehen askotan jostatzen ginen. Kuriketean gabiltzalarik, berriz, hauxe kantatzen dugu: *kuriketan-koketan, ortzitzen ez dena, bera bete. Bale zaudete? Ortzitzen* eta ez *ortzen* iduri lukeen bezala.

Gazteek ezagutu arren ez darabilte, herritarrekin ari direlarik ere ez, *igan, iratzarri* eta *heldu* (etorri trinkoetan) aditzak. Instrumentalean *zeta* egiten dute eta ez *ese*, *berris* (berriz), *aldis* (aldiz), *oines* (oinez) hemen bezala. Nahi dutelako ez dute esaten *dutelakos*. *Norantz* erabiltzen dute, ez *norata*, hemen bezala, eta hortaz ez dute *honata*, *horrata* eta *hata* esaten.

Zer esanahi duten *igarririk ematen* ez dioten hainbat hitz badarabiltzagu, oraindik, baina belaunaldiz belaunaldi pasatu ez ditugunak. Inoiz entzun ere ez dituztenak, *Baldinbes!* Arropa bezala hizkuntza *erkoixten* ari zaigu. Deusen *esparik* ez. Elurrarena ere ez? Aspaldixkoan ez bi ez bost *eri* ere ez dugu izan, bada. *Aparretsirik*.

*Aparretsirik?* Zer da hori? Adiskide bat hortxe ari da hiztegieta begira ea batean edo bestean ageri ote den, apika interneten bidez ere galdera egina duen, baina etsiturik esan dit ez duela inon irakurri edo entzun. Nola itzuliko zenuke erdarara? Ez dakit bada, «enviciado» edo horrelako hitzik baldin bada, betiere, gaztelania hiztegian. Baina, hara, lehengo egunean, Euskadi Irratian hor ari ziren Felisa izeneko emakume batekin, garai bateko jostailuak zirela eta ez zirela, eta emakume honek esan zuen gaurko umeak ordenagailura *engantxaute* zeudela. Haratx, hortxe erabiliko nuke nik *aparretsirik*.

Hauek ere ez ditugu berdin esaten: pilotan edo futboleko dabiltzanean, haur eta gazteek tantoak kontatzean *eta*-rik ez dute esaten, bat *eta* bost esanen genukeen guk, eta ez *bat bost*. Guk, *bat eta bat ere ez* Jean Etxepare idazlearen *pilota partida Lekornen* idatzian bezala, gazteek *bat huts*.

Gazteek, oharkabea, naturaltasunez mintzatzeko erraztasun gutiago dute, idazteko eta irakurtzeko ordea, ustez behintzat, handiagoa. Lehen, beti euskaraz ari izan arren elkarrekin, idatzi, erdaraz egiten genuen, erdaraz arras juxtu moldatzen ziren gurasoek ere, seme-alabei, eskutitzak erdaraz idazten zizkie-

ten. Nola ez zuten erdaraz eginen idatzia, ahozko komunikazioa bera ere, telefonoz, telefonoa sartu berritan hala egiten bazuten? Esku artean horrelako tresna deabru bat zutelarik ezinezkoa zitzaien euskaraz aritzea. Arantzazuko takoa, dotrina, elizako kantuak, *Umeen deia* eta etxe guztietan doan banatzen zen *Principe de Viana* aldizkariak landa, deus gutxi irakurtzen zen euskaraz herri hauetan. Duela hogeiren bat urte, gogoan dut, hemengo gizon zaharrek Mariano Izetaren *Negarrez sortu nintzen* liburua zein gustura irakurri zuten, eta leittu ahala nola pasatzen zioten elkarri. Euskara eta gaia hurbilekoak zitzaizkien eta horrela irakurtzea erraza zen. Orain uste dut irakurtzeko gehixeko baden etxeetan. Asko ez, hala ere. *Pulumpe* aldizkaria Imotz, Basaburua, Lantz, Ultzama, Atetz eta Odieta etxe guztietan hartzen dute. Udaleren erabakien berri emanez esku-papera, euskaraz eta gaztelaniaz banatzen dute.

Basaburuko eta Imozko udaletan ez da, segur aski, kanpora begira diskurtso instituzional askorik egin baina, azken urteetan egin direnak, uste dut euskaraz egin direla gehientsuenak. Lehen gogora ekarri dut Imozko gertakari bat, orain Basaburuko beste bat aipatuko dizuet.

Orain sei bat urte izan zela uste dut, udaletxearen berriztatze lanen amaieran. Alkateak euskaraz prestatu zuen, udal zinegotzi, Nafarroako Gobernuaren ordezkari eta herritarren artean irakurri behar zuen hitzaldia. Euskaraz irakurri zuen, euskal eremuan eta euskaldunen aurrean, Gobernutik etorritako ordezkaria haserretu egin zen ordea, berekiko errespetu faltatzat jo zuen euskaraz mintzatzea eta horrexekin hasi zuen bere hitzaldia, besteei errespetu falta egotziz, erdaraz jakina. Horrelakoak entzun eta irakurri ondoren euskara, gauza solemneetan, formaletan eta idatzietan erabiltzeko ez dela dirudi.

Euskal Herriko toki gehienetan bezala, hemen ere idatzi gutxi ikusiko ditugu eta haiek erdaraz. XVIII. mendeko Etxalekuko hiru etxek dute atalburuan idatziren bat, *-Zapatineneak, Dorrotoak eta Etxaundiak-*, eta hirurak erdaraz, XIX. mendeko elizan bezalaxe. Eta XVII. mendeko *Ernautenean* berriz, ez dakigu zer jarri nahi izan zuten ere, idatzi nahia bazela dirudi, baten batek alfabeto edota hizkuntza bereziren batean ote zegoen ikertu nahi izan du, hala ere. XX. mendean ordea, euskaraz idatzi zuten plazan (1921) eta San Pedro ermita zegoen tokian (1964), baita Joxe Jabier anaia zenaren omenez ezarritako oroitarrian ere (1997).

Euskaraz idazteko ohiturarik ez izan arren, Euskal Herrian idatzirik iritsi zaigun kopia zaharrenetakoa, Etxalekuko dugu.

«Ancareac oyna xabal buztayna labura norc berea demana beti da bellaco Marticho Musu da alaquo eta ala caynezco» (AGN, Procesos, n. 197511). Honen berri, Ricardo Urrizola Hualdek eman digu *Fontesen*, 2007an, 104. zenbakian. Dokumentua aurkitu berriz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Historia irakasle eta katedraduna den Maria Isabel Ostolazak.

Nonbait, 1491n, Etxalekuko jauregian, *Julinearen* gibeledko aldean edo, Maria Iturburua zeritzan emakume bat bizi zen, alargundu eta bere bigarren

senar Martitxo Musurekin. Diru beharretan izaki Iturburu andrea eta etxaldea garai hartako jauntxo bati, Uhartre Arakilgo Felipe Beaumonti, saldu bide zion eta honen etxean, eroslearen Uharteko etxean, hartu zuen bizitokia Mariak, Martitxo Musuren kezka handirik gabe. Bai Etxalekuko jendeak koplak atera ere hagitz agudo zero-lur beste aterperik gabe gelditu zen Martitxori!

Berrogeita hamar bat urte geroago, 1541ean, jauregia zela-eta auzia izan zuten bi emaztek, Isabelek, Feliperen alabak batetik, eta Maria Iturburuaren alabak bestetik. Auzi honetan lekuko aritu ziren Etxalekuko Maria Dorralde, lauretan hogeitorteko, Arbeyzaren alarguna, hiruretan hogeitorteko eta Maria Iribarren, hiruretan hogeita hamahirukoa. Azken honek, bere testigantzan aipatzen du Martitxo Musuri egin zioten koplak. Urrizolak dioenez, 1541eko dokumentu hau liteke euskarazko koplarik duen dokumenturik zaharrena, Garibairen *Compendioa* 1576koa baita.

Gaur, zirikatzeke, irri egiteke, madarikatzeko, txistek egiteke, axakatzeko, haserretzeko, ironia erabiltzeko... erdarara jotzen ote dugun maizegi eta erraxegi beldur naiz, ez dakit euskaraz koplarik egiteko grazziarik edota ahalmenik badugun, baina oraindik, ahuldadeak ahuldade, Etxalekun, euskararen transmisio-katea ez da hautsi. Zaharrena den lauretan hogeita bederatzitorteko osaba Joxanjelgandik hasitako soka, gazteena den hamar hilabeteko Kattalinenenganaino, bere ttatta-tta eta baba-ba horretan, euskarazko soka da, tartean, soka zirpildurik badago ere.

## HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Ez dute denek euskaraz mintzo den herri batean eman beren haurtzaroa, eta ez dute beraz euskaraz jostatzeko aukerarik izan, zoritxarrez. Eskolak ere ez ditu euskaldun egin, ez lehen legeen inolako babesik ez zenean, ez gero ere. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako eskualde euskaldunetan, bertako legeen arabera, ikasle guztiek oinarrizko eskolatzearen bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun aski behar badute ere, denak ez dira euskaldun.

Haurtzaroan euskara ikasi ez eta heldutakoan ikasi duenik bada ordea, eta ez gutxi, gehienak helduen Euskalduntze-Alfabetatze mugimenduari esker. Mugimendu honek berrogeiren bat urte du. Hasieran, batez ere alfabetatzeko eskolak izan ziren, euskaldunak alfabetatzea zuten helburu, eta gau-eskolak zeritzen, eskolak iluntzean ematen ziren eta.

Euskaltzaindiak, 1966an, Alfabetatze Batzordea izendatu zuen eta 80ko hamarkada hasiera arte Euskaltzaindiaren babespean egon zen mugimendu hau, orduko, euskalduntze lanetan alfabetatzen baino murgilduago. 1966an Rikardo Arregik Jose Mari Satrustegiri igorritako eskutitzean honela zioen: «Gainera, zu naparra zeran ezkerro, beste zerbait esan nahi nizuke. Ez ote legoke Nafarro'ko beste euskaldunekin beste orrenbeste egiterik? Gu, gazte

talde bat, prest gaude edozertan laguntzeko...» Alfabetatzeaz ari da, jakina. Laster, Etxarri eta beste herri bakar batzuetan hasi ziren lan horretan 70eko hamarkadan.

Nafarroan, Iruñean behinik behin, aurretik euskara eskolak ematen zituzten han eta hemen, Nafarroako Diputazioak, 1956an, *Principe de Vianaren* barnean sortu zuen *Sección para el Fomento del Vascuenceren* bidez eta beste. Lehen ikastola sortzen aritu zirenak batetik, eta Nafarroako Unibertsitatean ikasten ari ziren gazte euskaldun zenbait bestetik, asmo beraren inguruan bildu eta sortu zuten Arturo Campion euskaltegia 1972an. Eskolapioetan izaten ziren eskola haiek, baina laster Mendigorriko emakume bati Compañía karrikan lokal bat alokatu eta ikastetxeak hantxe izan zuen bere lehen egoitza. Babes legala berriz, Javier Cunchillosek gidatzen zuen Etorrizuna elkartek ematen zion. Eta Patxi Zabaleta izan zuen lehen zuzendaria ikastetxe hark. Ikastetxea diot, garai hartan ez baikeuen euskaltegia hitza erabiltzen ikastetxea baizik.

**Euskaltegi** hitza Imanol Berriatuak, Xabier Mendigurenek eta Xabier Kintanak sortu omen zuten Israelgo ULPAN itzultzeko. Euskaltzaindiaren Euskalduntze-Alfabetatze Batzordeari izena aldatzeaz, mugimenduaren barnean hainbat eztabaida egin zen 1979an, eta proposamenetako bat *Goiherriko Euskal Eskolako* talde eragileak egin zuen, bertan, hain zuzen **euskaltegi** hitzaz ere beraien iritzia eman zuten: «...euskaltegi hitzari ongi moldatua deritzogu... halere, belarrira guztiz bitxia egiten zaigu...». Nori zaio bitxia gaur? Askotan, zail da asmatzen hitzek zein bide egingen duten!

**Euskalduntze-Alfabetatze** izena ere kritikatzeko zuten, askorentzat ahoskatzeko zaila izateaz gain, itsusia zelako. Gure artean aditz nominalizatuak erabiltzeko den abusuari jarraitzen ziola izen horrek eta ea zertarako ditugun beste atzizkiak galdetzen zuten Goierrikoek.

Izenekin jarraikiz Arturo Campion euskaltegiarenarekin segi nezake. Hainbeste urteren buruan, oraindik, nola idatzi oso garbi ez dugu, hau da komedia *Komedia* karrikan duguna! Euskaltegian, orain dela 20 bat urte, italiar bezala idazteko erabakia hartua dugu, hainbat paperetan ordea, izugarriko anabasa dugu. Idaztekoan ditugun arazoak arazo, oso egoki deritzogu helduak euskalduntzeko ikastetxe batentzat, Euskaltzaindiaren sortzaile izan zen Campionek berak euskara heldutakoan ikasi baitzuen, gramatika aztertzen eta idazten iaioagoa izanik ere, mintzatzen baino.

Euskalduntzearen helburua ahalik eta euskal hiztun gehien ahalik eta epe laburrenean erdiestea da, euskararen gainean jakitunak egitea ez da gure xedea, horretarako baditugu beste instituzio zenbait. Mugimenduaren jomuga hasieran euskaldunak ziren, euskaraz alfabetatu beharrekoak; gaur ordea, euskaraz bati ere edo zerbait dakiten erdaldunak dira. Eta ikasten ari denaren edo ikasteko asmoa duenaren helburua ere hori bera da. 1996an, *Siadecok*, Euskal Herrian, 20 eta 29 urte bitartekoan artean egindako azterketan, euskara ikasteko asmoa





zuen nafarren %74k euskaraz hitz egiten ikastea zuen helburu, eta hamaika urte geroago, Arturo Campion Fundazioak eskatuta, *Taller de Sociologiak* Iruñea, Atarrabia, Burlata eta Barañainen egindako azterketan ere hori bera dakusagu, %74,2k eguneroko bizitzan erabiltzeko adinako gaitasuna erdietsi nahi duela, edota ulertu bederen. Lanerako titulua atera nahiko luketenak ere, badira franko, %18,5.

Euskara ez ikasteko erabiltzen duten arrazoi nagusia azterketa gehienetan dakusagunez *denbora falta* da. Euskara *zaila* dela diotenak ere ez dira gutxi. *Ez dut euskararen beharrik* esan zuten 1996an 20 eta 29 urte bitarteko askok, orain, 32 eta 41 urte artean dauden horiek. Campion Fundazioak eskatuta, iaz, Iruñerrian egindako azterketan berriz, ez ikasteko arrazoi nagusia *adinekoa izatea* da. Joan den hamarkadan denborarik ez eta ikasi ez zutenak orain zaharregi dira!

Azterketa horretan berean Iruñea, Barañain, Burlata eta Atarrabiako 15 urtetik goitiko populazioaren %19,7k esan digu *ez duela euskara ikasteko inolako* interesik, eta besteek, lehen aipatu bezala, arrazoi hau edo beste dabilte euskaltegira ez etortzeko epe motzean. Txepetxek dio bigarren hizkuntza ikasten hasteko motibazio aski behar dela, motibazioaren basoa neurri bateraino betetzean, hurrengo basora isurtzen hasten da, hau da, ikasten.

Zerk bulkatzen du ikastera? Ez da erraza gaurko ikuspegitik garai bateko ikaslearen motibazioa zein zen esatea, gaurkoarekin kutsatzeko arriskua baitugu. Garai hartako ikasleei orain galdetuko bagenie, aurki ere, arazo bera

izanen lukete, garai hartako beren pentsamendua zein zen esateko zailtasuna izanen lukete. Euskaltzaindiak 1979an argitaratutako *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* liburuan irakurri dugu, euskara ikasteko arrazoi nagusia herri honetakoa izatea dela, herri batek irauin ez dezakeelako bere hizkuntzarik gabe. Liburu honetan berean, 1976-77an, helduen euskalduntze- alfabetatzea zertan den ageri zaigu, hau da, mugimendua sortu eta hamar urtera. Honatx datuak: 40.000 ikasle eta 2.000 irakasle Euskal Herriko herrialde guztietan barna. Gehienak euskalduntzen ari dira, nahiz eta alfabetatzen ere jende franko ari den, batez ere, Gipuzkoa eta Bizkaian.

Motibazioari lot nakiem. Afektibo ideologikoak dira nagusi; «maite dudalako» edo «gure herriko hizkuntza delako» bezalakoak. Arrazoi komunikatzaileek ere badute pisua, eta garrantzi gutxien, berriz, pragmatikoek, 1996ko azterketan. Iruñeko inguruan oraintxe egin dugun azterketan ere arrazoi guztien artean identitatea nagusitzen da, gure hizkuntza izateaz gain kultura ondasuna ere baita. Gazteenengan arrazoi pragmatikoak indar handia du halere. Seme-alabekin mintzatzeagatik ikasi nahi dutenen artean gehienak emakumezkoak dira, nahi duenak hel biezaio hari mutur honi, zer esan franko izanen du eta.

Maider Sukunzak Arturo Campiongo ikasleen artean egin zuen azterketan ere, motibazio integratzailea azpimarratu du, eta instrumentala ez dela ageri dio, batzuek, agian, etorkizunean euskara jakitea ongi etor dakiekeela aitortu arren.

Ez da naski, arrazoi bakarra eta garbia izaten euskara ikasten hasteko. Kantak ulertzeko, belarrira polita zaidalako, halakori entzun niolako, gustukoa dudan idazlearen liburuak jatorrizko hizkuntzan irakurri nahi ditudalako, deiturak aztertzen hasi nintzelako, historia ikasten hasi nintzelako...

Badira euskara ingurukoei zor dieten *begiruneagatik* ikasten dutenak. Beti euskaraz aritzen garen horiekin erdaldunen aurrean ere euskaraz aritzeagatik, hamaika aldiz, esan izan digute edukazio arrastorik ez dugula. Alderantziz, berriz, gogorra edo gordina da, politikoki ez zuzena izateaz gain, erdal elebarrak euskaldunoi bere hizkuntza inposatzen digula esatea. Askotan erdalduna gu baino kontzienteagoa da honetaz, eta bera han egonik ere, euskaraz hitz egiten segi dezagun eskatzen digu, tarteka berari erdaraz mintzatzen bagatzaizkio, erabat kanpoan utzi gabe. Eta bada jendea, hain zuzen ere, horrexegatik ikasten duena, besteenganako errespetuagatik, inori deus inposatu nahi ez diolako. Elkar ulertzeko ahalegina biek egin behar dutela baitakite, ez alde batekoak bakarrik, bestenaz, mendekotasun harremana sortzen da eta ez elkar ulertzekoa.

Euskara hizkuntza zaila da, ordea, dio askok. Moreno Cabrerak dio hizkuntzak ez direla zailak edo errazak, beti dakigun hizkuntzatik ikasi nahi dugun horretara dagoen aldearen arabera dela zailtasuna. Portugaldarrentzat gaztelania alemana baino errazagoa da, eta alemanentzat nederlandera gaztelania baino errazagoa. Xamarrek dioen bezala, bi hizkuntzen arteko alde

bera da alde batetik edo bestetik begiratuta. Hortaz, distantzia edo zailtasun bera du erdara –frantsesa edo gaztelania– ikasi behar duen euskaldunak edo euskara ikasi behar duen erdaldunak. Hau horrela izanik ere, ahalegina diferentea izanen da, erdara ikasteko bitarteko eta laguntza guztiak ditugulako; euskara ikasteko, berriz, dena zailtasun eta oztupo. Bai jendartean dituenak, bai administrazioetik jartzen zaizkionak.

Lege eta oztupo guztien gaintetik, eta hodei ilun guztien azpitik, euskara ikastera hurbiltzen da hainbat heldu. Hasiera hartan oso gazteak, 25 urtetik beheitikoak, ziren etortzen zirenak, kultura, dantza eta mendi taldetan zebiltzanak asko, ikasleak, giro politiko jakin batean mugitzen zirenak. Lehen aipatu dudan *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* liburuan, 1977an, ikasleriaren honako ezaugarri hauek ageri dira: emakumeak %60, eta ehuneko bertsuan 25 urtetik beheitikoak, gehienak bertakoak eta ikasketa-mailari dagokiola berriz, nagusiki erdi-mailako ikasketak zituztenak eta unibertsitatean ikasten ari zirenak ere asko. 1986-87rako aldatu zen ikaslearen tipologia, ikaslea ez da lehenengo gune beretik heldu, jendartea ere aldatu baita asko, adinez ere helduagoak dira, lauretatik hiru hurbil, 20 eta 30 urte bitartekoak dira, gazteagoak %17,5 izanik. Iruñeko AEK, IKA eta Hizkuntza Eskolan, 2000. urtean, Arrese, Bueno eta Perez andreek egindako azterketan, ikasleen %81k 20 eta 40 urte bitartean zituen. Eta gaur, Campionen, bi heren 20 eta 40 urte artean dago, eta heren bat, berriz, zaharragoa da, 20tik beheitiko ikaslerik ia ez dago. Argi esan dezakegu ikasleria gero eta zaharragoa dela, nahiz eta euskaltegitik euskaltegira datuak aldatzen diren ehunekotan,. Ez da naski harritzekoa populazioa gero eta zaharragoa izanik eta gazte frankok D erduan egin dituela ikasketak jakinik. Euskaltegietan euskara ikasten ari direnen artean gizonezko baino emakumezko gehiago ari da, lehen urteetan izan ezik, eta beti horrela izan da gainera. Iruñean, 2000. urtean %56 zen emakumezkoa. HABEren datuetan 2005-06an, Euskal Autonomia Erkidegoan, ikasleen bi heren baino gehiago emakumezkoak ziren. Ikasle gehienak, oraindik ere, bertakoak dira. Iruñean 2000. urtean, ikasleen %81 Nafarroan jaioa zen. Horregatik deigarria da oso Jakes Bortairuk ematen digun datua: Iparraldean, ikasleen %32k Euskal Herrian 10 urte baino gutxiago darama.

Irakasleriaren perfilaren datu askorik ez dugu eskuartean, Bat aldizkarian HABEtik emandakoetan esaten da adinari dagokionean 40 urtetik beheitikoak dela, gehienak lizentziatuak edo diplomatuak eta %70 inguru emakumezkoa. Arturo Campion euskaltegian ere, lehenengo urteetan izan ezik, emakumezkoak gehiago izan dira. Euskaltegi honetan sorreratik gaur arte 250en bat irakasle aritu da, batzuk urte gutxian beste zenbait luze, gaur ari direnen %44k 20 urtetik goiti egin du lan horretan. Mattin Manterolak euskaltegiak hainbat urte du ikastetxe honetan, ez da asko izanen beste horrenbeste urte egin duenik helduen euskalduntze eta alfabetatzean! Campionen aritu diren 250 irakasleetatik gehienak nafarrak izan dira eta horietako franko aurretik euskaltegian berean euskaldundua edo alfabetatua, gaur erantzule dudan Patxi Salaberri bezala.

Euskalduntzen hasi ginen garaian, guztiok ere ezjakinak ginen hizkuntzen irakaskuntzan. Hasiera hartan Patxi Altunaren *Euskara hire laguna* hartu genuen metodotzat, eta gogoan dut Patxi bera etorri zitzaigula, Nafarroa Behereko etorbidean dagoen Centro Xabier horretara nola irakatsi erakustera. «Ikasleak ez beza deus esan, entzun baino lehen; ez beza deus irakur, esan baino lehen...». Ikasleak gauza bat nola eta zergatik den aditzea eta gauza hori bera ikasleak esaten jakitea oso gauza desberdinak direla esan zigun. Ikasleak errepikatzearen poderioz ikasten duela; aurrean ditugun gauzetatik hasi behar genuela erreferentziak ematen, eta beste hainbat aholku eman zigun Altuna jaunak. Eta hortxe hasi ginen «hau eskua da» eta «hauek begiak dira» irakasten. Lasatarrek eta Gernikako beste hainbat familia euskaltegian izan genituen gurekin, liburuaren bidez haien gorabeherak ikasten genituen.

Gero, *Euskalduntzen* liburuak iritsi zitzaizkigun. Itxura berriagoa zuten hauek, arinagoa. Imanol ageri zen eskola ematen. Eskaintza ere polita zuen bizkaitar irakasle haiek egin zuten lehen liburuak: «Barakaldotik Tuteraraino euskaraz ikasten ari direnei». Baina Iruñean, Campionen, ez genuen asko erabili, zenbait oso zalea bazen ere, nafar burugogor gehienontzat arrotzegia zen «etxe aurrean, gurdia egon da eta belar meta bat ere bai» irakurtzea eta gurdia eta belar meta han ikustea, marrazkian. Nola *egon da? hemen dago* eta.

Liburuak eta kantak ere hor genituen lagungarri. Orduan orain baino askoz gehiago kantatzen genuen, indar handia baitzuen garai hartan euskal kantagintza berriak, eta ikasle askok kantari esker euskara ederki ikasten zuen. Buruz ikasten genituen kantak ikasle eta irakasleok, eta afalondoan ez zegoen kanta liburuxka atera beharrik orain bezala.

Aditz koadroa ikasle guztiak eskuratu nahi zuten altxorra zen. Irakasle batek aditza lantzeko jostailu polit bat asmatu zuen eta Mañueta karrikan txurroak nola horrelaxe saldu genituen jostailu haiek. Ikasle eta irakasle guztien obsesioa izan zela uste dut. *Nor, nori* eta *nork* beti inguruan, euliak behiarenean bezala. Ikasleak matrikulatzera etortzen zirenean ea zein urrats egin ote zuen aurreko euskaltegian edo ikasturtean galdetu eta, nor-nork lehen aldian landu zutela erantzuten zuten, halako edo honelako urratsa egin zuela erantzun ordez. Gaitza larria izan zen eta erremedioa bilatu behar nonbait. Azkenean, *nor, nori* eta *nork* balkoitik beheiti bota behar izan genituen. Laugarren pisuan egonik irtenbidea ez zen txarra izan. Denak lasaitu ginen pixka bat.

Bitarte horretan beste metodo zenbait ere etorri zen gurera, *Hitz egin* eta *Jalgi Hadi* marrazkiz lagundurik. Gero etorri ziren AEKren talde didaktikoaren lanak eta *hormairudiak*. Iraultza neurri batean bederen, metodo komunikatiboz hitz egiten hasi baikinen. Eta geroago Gasteizko IKAREN *Hitzetik hortzera*. Gaur, ez dut uste inon liburu bat hartzen duten metodotako. Ikastunitate bereziak prestatzen ditu euskaltegi bakoitzak bere eskoletan erabiltzeko. Ikus-entzunezko euskarriak ere gero eta gehiago erabili izan ditugu.

Hasieran, lehenengo egunetan, ikasleari kostea egiten zaio gure irakas-sistemaz jabetzea, itzulpena eta adierazpen gramatikalak nahi izaten ditu, eta guk, argi uzten diegu eskolan hizkuntza bakarra euskara dela. Esaldiak buruz ikasi behar dituela esaten diogu, leroek bezala errepikatzeko behin eta berriz, behin eta berriz, buruz ikasi arte. Horrela gero, behar orduan, esaldiak, ohar-kabea, naturaltasun osoz esanen dituztela, hitzez hitz pentsatu eta lotzen hasi gabe. Eta ikasleren bati, halako batean, «aizu, nola esaten da *como se dice*» entzuten diogunean kontent izaten gara irakasleok, gure metodoak ongi funtzionatzen duela eta.

Azken urte hauetan, auto-ikaskuntzak indar polita hartu du zenbait tokitan. Jende asko da *on-line* ikasten duena, *Boga* edota *Bai & by* sistemen bidez euskaltegira joan beharrik gabe.

Orain, irakaskuntzan, askoz ere bitarteko tekniko gehiago dugu, materiala ere bai, baina ikasleak ahalegin bertsua egin behar izaten du. Lehen esan dut, hizkuntzen arteko aldea zenbat eta handiago orduan eta zailago egiten zaiola ikasleari bigarren hizkuntza hori ikastea. Horrexegatik beharbada, kostatzen zaio hainbeste euskara ikasleari, hasieran, esaldiaren ordenaz jabetzea. Zergatik esaten ditugun gauza guztiak atzekoz aurrera esaten digute, euskaraz dena aldrebes egiten omen dugu. Gaur, sarrera hitzaldi honetarako marrazkiak egin dizkidan Asisko Urmenetaren erantzuna ematen diegu honelakoetan:

Altxorraren bila jostaketan aritzeko askoz ere errazagoa delakoz euskararen ordena zuzena, erdararen aldrebesa baino. *Hurrengo pista, beheitiko pisuko sukaldeko ezkerreko armairuko eskuinaldeko bigarren kutxan dago*. Eta erdaraz hor hasiko zara, *en el segundo cajon del armario...* Hara, erdaraz hori irakurri orduko, euskarazkoa irakurri duen ikaslea lehenengo pisuan da.

Lehen, erdara eta euskararen arteko distantzia, Iruñean ez zen hain handia. Orain arras arrotz egiten zaizkien euskal kutsuko honelako esaldiak: *la madre y hemos venido. ¿Qué estabas tardada? ¿Pues? No soy cosa para nada. Vas a tomar mal...* egunerokoan barra-barra erabiltzen baitzituzten erdaraz. Eta ikasleei, *berantetsirik eta ez naiz deusetarako gauza* eta gisakoak oso hurbi-lekoak zitzaizkien.

Aditzarekin buru-hauste franko izaten dute, batez ere, *dut* eta *ditut* berezi behar horrekin. Baina benetan misterioa, ergatiboa da, noiz erabili *zu* eta noiz *zuk*?

Joan den irailean ikasle batek bi azterketa zituen egin beharrak ingelesa eta euskara. Urduri zegoen, euskarazko azterketagatik, ez bestearengatik. Bertako hizkuntza izateak nonbait bereziki eragiten du pentsatu nuen. Alde psikologikoa aztertzeak unea zen. «Zergatik zaude urduriago euskarazko azterketaren aurrean?» galdetu nion. «Ingelesak karik ez duelakoz» erantzun zidan. Segundo batzuk behar izan nituen esan zuenaz jabetzeko. Beste ikaskideek ez ordea, hagitz agudo esan zuen ondokoak: Bai, *ka* madarikatu hori!

Beldur naiz, izutu ere egin ote ditugun irakasleok ikasleak *ka* horrekin. Irrirako bidea ere eskaini digu ordea, maiz irakurri dugu *Zaldi Eroaren tira Berria* egunkarian, *Ka* gurtzen duen maisuaren istorioekin.

Gogoz aritzen dira gure ikasleak, ahalegin handia egin behar izaten duten arren, hizkuntza bat ikastea neketsua baita. Gogorrena halere, bere eguneroko egitekoak utzi gabe, euskara ikasteko, astean zortziren bat orduko astia hartu behar izatea da. Horrexegatik uzten diote askok euskara ikasteari, denbora faltagatik.

Denborarik ez izatea ez da arrazoi bakarra, baina bai nagusia. Aski ez aurreratzea da aipatzen duten beste arrazoietako bat. Tarteko urratsetan maiz gertatzen da horrelako etsipena, lehen urratsean argi ikusten dute aurreratzeko ari direla, dena da berria, elkarrizketa tikiak egiten dituzte, asko dakite. Gero, ikasi dutenari baino falta dutenari gehiago begiratzen diote.

Euskaltegian ikasitakoa handik kanpo erabil dezan nahi dugu, baina hori ez da batere erraza. Karrikan, etxean edota lantokian gehienetan, ez dute no-rekin euskaraz ari. Iruñean, kale-erabilera, azken neurketen arabera %2,8koa besterik ez da. Eta ingurune euskalduna dutenek ere ez dute erraza lagun eta familiakoekin harremanak erdaraz eginak baitituzte, eta ohitura hori haustea ez da batere samurra izaten; ikaslearen maila baxu xamarra baldin bada, euskaldun zaharrak holakoekin ikasten ari den horri «laguntzarren» erdarara jotzen du zenbaitetan; euskaldun zaharra eta berria elkarrekin ari direnean, batzuetan, euskaldun zaharra beldur izaten da euskara batua, *euskara berri* hori ez ote duen ententituko eta elkarri ulertzeko erdaraz mintzatzen zaio. Ez da harritzekoa jarrera hau, behin eta berriz euskaraz ez dakiten sasijakintsuek esan izan baitigute irakasten eta ikasten dugun euskara ez dela euskara, hemen *Alto Navarro Meridional* irakatsi behar dugula, ez bata, ez bestea zer diren eta nolakoak diren arrasto zipitzik ez badute ere. Modu batez edo bestez, euskara baztertuta, erdaraz mintza gaitezen bulkatzen gaituzte. Hori dela eta, euskaltegira etortzeari uztean ikasi duten hori galdu egiten du frankok, zenbat eta maila baxuagorekin utzi euskaltegia orduan eta lehenago galtzen dute ikasitako hori. Eta urte batzuen buruan, hauetako asko, berriz itzultzen da euskaltegira. Ez da ordea, utzi zuen mailan hasten, zoritxarrez. Egindako lana alferrik galdua dela pentsatzen dugu maiz; ikasle askok halere, badirudi, ez dutela horrela sentitzen. Jose Antonio Iturrik, *Campion euskaltegiaren 25. urteurrenean zioen: no hubo fracasos y si victorias menores. Porrotik ez garaipen tikiak baizik.* Egindako ahaleginaz harro zegoen, euskara ez zen jada hizkuntza ezezaguna eta zaila. Euskarara maitasunez hurbiltzeko balio izan ziela ikasitako gutxi horrek dio Iturrik.

Ikasi dutenak ez dira, ordea, gutxi, eta horietako gehienak oso jarrera aktiboa izan dute, ahal duten guztietan euskaraz aritzen baitira. Zenbaitek bere lanabesa du euskara, irakaskuntzan edo komunikabideetan. Edo egunerokoan euskara erabiltzen du, lantokian, etxean, karrikan... Titulua erdietsi dutenak,

eta alfabetatu direnak ere badira, eta, horren ondorioz, lehen euskaraz mintzaten ez zirenak, orain euskaraz aritzeko ohitura hartu dutenak.

Norbanakoaren ahaleginaz egin dira aurrerapauso hauek. Ikasteko ahalegina norbanakoak egin beharko du aurrera ere, baina lana aritzeko ahalik eta erraztasun handienak eman behar dizkiogu, zama guztia norbanakoaren bizkar utzi gabe. Badakigu ikasten ez hasteko edo ikaste-prozesua bertan behera uzteko arrazoi nagusia denbora falta izaten dela. Hori horrela izanik, administrazioek eta enpresek denbora oparitu beharko liekete euskara ikasi nahi dutenei, hau da, gaur egun irakasleekin eta funtzionarioekin egiten duten gisara. Bere lanetik liberatu euskara ikasi nahi duen nafar heldua, bere soldata eta lanpostua atxikiz, doako ikastaro trinkoetan edota barnetegietan euskara ikas dezan. Horretarako euskaltegiekin kontzertatuz irakaskuntzan egiten duten gisan. Behingoz helduen euskalduntzeari erantzun egokia emateko bidea hauxe baita, eta ez orain arteko dirulaguntzen politika. Horrela prozesua askoz motzagoa litzateke, eta euskararen erabilera handitzeko beharrezkoa den masa kritikoa erdietsiko genuke.

Eusko Jaurlaritzaren eta euskalduntze-alfabetatze sektorearen artean harreman gorabeheratsuak izan dira, baina azken urteetan elkarlanean aritzeko pausuak eman dituzte eta aurrera begira egin beharrekoaz gogoeta egiten ari dira. Iparraldean oso berria da instituzio eta sektorearen arteko harremana, orain, Euskararen Erakunde Publikoaren bidez, bertako instituzioek, hizkuntza politika egitasmoan, helduen Euskalduntze-alfabetatzearen aitortza egin dute. Nafarroako Gobernuak ere, sektorearekin biltzeko eta arloaz gogoeta egin eta zenbait neurri hartzeko asmoa azaldu du, oraingoz asmo baizik ez bada ere. Guztiak batera jokatzeko litzateke desiragarri, guztiok helduen euskalduntzea eta hizkuntza normalizazioa baldin badute helburu.

Nafarroako Gobernuaren aurretik Diputazioak, helduen euskalduntzeko eskola bakar batzuk bideratu zituen 60ko hamarkadan. 1972an, helduen euskalduntzeko irakasleen lana ere aintzat hartu zuen eta saritu nahi izan zituen. Horrela *Principe de Vianak* gonbidaturik, irakasleek afari eder bat egin zuten Iruñeko Hartza jatetxean, jatetxe honen kontura, gonbidatzaileari ordaintzea aitendu baitzitzaion.

Hurrengo urteetan hor ikusten dugu Diputazioa, Euskararen Irakaskuntzako Batzordeak proposatuta, helduen euskalduntzean ari ziren irakasleei edota ikastetxe edo euskaltegiei dirulaguntzak ematen. 1980an, Euskaltzaindiak, Alfabetatze-euskalduntzeak duen hedadura eta garrantzia kontuan izanik, sektore hau Eusko Kontseilu Nagusia eta lau Diputazioen ardurapean ofizialtzea zela egokiena ikusi zuen. Euskaltzaindiarekin zituen loturak askatu, eta bere zeregina ongi betetzeko, Alfabetatze-euskalduntzea zerbitzu publiko bilaka zedin nahi zuen Euskaltzaindiak. Ofizialtasun hori ez zen gauzatu, zailtasun handiak izan zituen eta. Hilabete batzuen buruan ordea, Nafarroako Diputazioak 1978an sortu zuen Hizkuntza Eskolaren bitartez bideratu zituen heldu-

entzako irakaskuntza trinkoak, batik bat langabezian zeuden diplomatu eta lizentziatuentzat antolatua. (CIE)

Euskaltzaindiak eta Koordinakundeak, hau zerbitzu publiko bilakatu nahi-an, *Fomento del Vascuence* sekzioan sartzeko ahalegina egin zuten. Baina hau ere alferrikakoa izan zen, Koordinakundea instituzionalizatzerik ez zen izan.

Geroztik, euskalduntzearen inguruko planteamendurik ez du egin Nafarroako Gobernuak, dirulaguntzen bidea besterik ez darabil AEK eta IKArekin. Dirulaguntzak bideratzeko arautegia, Nafarroako Diputazioak, 1981ean onartu zuen. Eta asmo berarekin, onartu ere Nafarroako Gobernuak 1988an, oraindik indarrean dagoen Foru Dekretua. Irizpide zehatzik ez dago ordea, eta dirulaguntzak ez dira beti berak izaten.

Orain urte pare bat Arturo Campion Fundazioak, Gobernuaren dirulaguntzen murrizketa zela eta, *Zeu izan Gobernua* kanpaina egin zuen dirua biltzeko helburuarekin, eta hor hurbildu zitzaigun bere laguntza eskainiz, Arturo Campion idazlea ezagutu zuen emakume bat. Jacinto Campionek, bere seme Arturo jaioberriarentzat, Ollakarizketan, emakume honen amona hartu omen zuen ugazamatzat. Nola ez zuen bada lagunduko umearen izena daraman euskaltegia!

Dirulaguntzen politika hau aldatu eta normalizazioaren bidean abiatuko ahal da Nafarroako Gobernua! Oraindik berde dagoen helduen euskalduntzea behingoz ontzeko, behingoz horitzeko. Hala biz.

## BIBLIOGRAFIA

- ALTUNA, P., 1976, *Euskara hire laguna*, Mensajero.
- ARRESE, M., BUENO, G., PEREZ, Z., 2001, *Euskara ikasten ari naiz 2000. Helduen euskalduntze bidea*.
- ARTURO CAMPION-IKA, 1997, *Iruñean hogeita bortz urte*, Iruñea.
- BAT. SOZIOINGUISTIKA ALDIZKARIA 62. ZENB., 2007, *Helduen Euskalduntze-Alfabetatzea*. Bat. Soziolinguistika aldizkaria 64. zenb., 2007, *Kale neurketaren V. Neurketa 2006*.
- ETXEGOIEN, J.C., «Xamar», 2001, *Orekan. Herri eta Hizkuntzen ekologiak*. Pamiela, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA, 1979, *Hizkuntza borroka Euskal Herrian*, Bilbo.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA, 2003, *Euskalduntze-alfabetatzearen etorkizunerako oinarriak eraginkortasunari eta kalitatea hobetzeari begira*, Eusko Jaurlaritza.



- GOIKOETXEA, J.L. & BILBAO, B., *Imanol Berriatuaren bizitza euskalduntzearen ezteandan 1970-1980*, Bilbao.
- GROS, M., 2007, *Recuperación del Euskera en Navarra*, Jagon bilduma 2, Euskaltzaindia, Bilbo.
- MORENO CABRERA, J.C., 2000, *La dignidad e igualdad de las lenguas*, Alianza Editorial.
- NAFARROAKO GOBERNUA, 2003, *Estudio Sociolingüístico sobre el vascuence en Navarra. 2003. Competencia lingüística, uso y actitudes*, Iruñea.
- OTEGI, M., 2006, *Zergatik euskaraz. Goierriko euskaltegietako ikasleen motibazioak. Ikerketa psikosoziolingüistikoa*. Lazkao.
- SANCHEZ CARRIÓN, J.M., «TXEPETX», 1987, *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia. Siadeco, 1996, *Helduen euskalduntzea: Eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak*, Donostia.
- SUKUNZA, M., 2007, *Iruñeko Arturo Campion euskaltegiko ikasleen motibazioaren azterketa*.
- TALLER DE SOCIOLOGIA, 2007, *Euskara Iruñerrian*, Iruñea.
- URRIZOLA, R., *La copla de Etxaleku*, 2007, *Fontes Linguae Vasconum*, 104. zenb., Nafarroako Gobernu.



## GORRITIK HORIRA

### Erantzuna

Patxi Salaberri Zaratiegi

Alkate andrea,  
Euskaltzainburu jauna,  
euskaltzainak,  
Sagrarioren familiakoak,  
agintariak,  
jaun-andreak.  
Egun on.

Kontent eginen dut hemen, Etxalekun, Sagrario euskaltzain berriaren hitzaldiaren erantzuna. Izan ere, euskararekiko nire lehen kontaktua, herritik Iruñera bizitzera igo ginelarik, alderdi honetako euskaldunekikoa izan zen, Beramendi eta Udabeko senar-emazteak izan baikenituen auzo zenbait urtez. Kontaktu berezia eta gazi-gozoa izan zen, biak euskaldun garbiak izanagatik (gizonak aise hobeki solas egiten zuen euskaraz gaztelaniaz baino, andreak beharbada erdaraz errazkiago) erdaraz aritzen baitziren, frankismoaren garai haietan, elkarrekin, bai karrikan eta bai etxean ere, eta gaztelania baizik ez baitzieten erakutsi bi alabei. Egia da gero, alaba horietako batek behintzat euskara ikasi duela, ez beharbada arras ongi, baina moldatu behinik behin egiten da. Haur bat ere badu orain eta pentsatzen dut Basaburuko euskaldun haien ilobak euskara ikasi izanen duela, ez lehen bezala etxean segur aski, baina bai, eta ez da gutxi, ikastolan edo eskolan, alegia, *begiá, buruú, esení* eta besteren ordez *begia, burua* eta *esnea* erraten ikasi izanen du.

Ez ziren urriak hirurogeiko hamarkadan Iruñean bizi ziren herrietako euskaldunak, baina nekez sumatuko zenuen garai hartan euskara kalean. Oroitzen naiz gure arrebaren adiskide batek –hogeit bat urte zituzkeen orduanola erran zigun ez zuela sekula bere denboran euskararik aditu. Zer soinu zuen ere ez zekien neska hark! Hortaz, pentsa dezakezue gure hizkuntza ikastea eta ikasitakoari eustea ez zela aise sasoi hartako Iruñean, «euskaldunon hiri buruzagian». Ez dut erranen orain erraza dela (Satrustegiri hilzorian zegoenean Nafarroako ospitalean agitu zitzaionaz oroitu besterik ez dago), baina irratiekin eta telebistarekin entzumen gutxienez landu daiteke, ikasitakoa atxiki, eta, bestalde, egunkari-liburuak hor daude, ordenagailuek etxeratzen

edo bulegoratzten dizkiguten material idatzi eta ahozkoetz landara. Gainera, egun, hezkuntzan sartzearen eta euskaltegien lanaren ondorioz frankotan entzuten da euskara Iruñeko karrketan, ez menturaz auzo guztietan hein berean, ez eta deus jakin gabe ikasteko moduan ere, baina aurrera egin dugula zalan-tzarik ez dago, nahiz ez, segur aski, guk nahi genukeen bezain azkar.

Euskaldunak ez ezik euskaltzaleak ere baziren Iruñean garai gartan: hamar urterekin Arrosadiko eskolan maisu izan nuen Don Augusto izenekoaz oroitzen naiz beti; ez dakit zer deitura zuen, ez Iruñekoa berekoa zen, herri euskaldun batekoa edo beste nonbaitekoa, baina gogoan dut nola azaldu zigun, zenbait egunez, tarteka-marteka, gure deiturek zer erran nahi zuten (garai hartako Iruñeko etorkin gehienak Nafarroako herrietakoak ginen), zer adiera zuten, ez dakit zuzen ala makur, baina ia berrogei urte igarota ere ez zaizkit ahortzi irakasle prestu haren saio haiek.

Gero, Ximenez de Rada izena zuen Gurutze plazako institutuan ere egokitu zitzaidan euskaldunekin ikastea, Iruñeko bertako lehen ikastolumeekin eta, baita ere, zenbait herritako euskaldunekin, Areso eta Goizuetakoekin, adibidez. Gogoan dut Etxalekuko mutil sendo xalo euskaldun bat ere bazela, *Moreno* deitura ez hain euskalduna zuena, familiarekin Irurtzunen finkatua orduko, oker ez banaiz.

Beranduago Arturo Campión euskaltegiko (artean *Arturo Kanpion* zen eta *gaueskola* erraten genion) atea jo eta euskara serio ikasten hasi nintzenez Sagrarioren anaia, Jose Manuel, izan nuen irakasle, eta gero, hiru egunez, 1977 edo 1978an, hemen, Alemandarren Etxalekuko etxean ikastaro labur-trinkoa egiteko aukera izan nuen. Haiek lanak eta estualdiak hemengoei entenditu ezinda! Guk klaseetan hitz guztiak oso-osorik ikasten baikenituen, eta hemen berriz, silaba gose balira bezala hitzen erdia jaten baitzuten! Hiru gauza ditut oraino buruan sarturik: guk ikasi genuen *berehala* hura *bela* erraten zutela lehena, Etxaleku inguruko oihaneko zuhaitz bat *tximistak jo zuela*, eta ziztorrak *beratz* zeudela. Zer ote zen hura guztia?

Sagrario bera lankide izan dut zenbait urtez Campionen, lankide eta irakasle, pasilloetako elkarriketetan, eskolak prestatzeko egiten genituen bilertan (aitzinago, Euskaltzaindian, *bilkurak* egiten hasi ginen) irakaskide nituen Martintxo Manterola, Kontxi Agerre, Miren Beitia, Bittorio Lizarraga, Zito Alduntzin, Iñaki Zabaleta, Mikel Bujanda, Lontxo Gorroñoren eta besteren euskara hitz erdirik galdu gabe ere buruan sartzen eta atxikitzen saiatzen bainintzen. Ez dakite, oharkabean ere, zenbat lagundu didaten niri eta ni bezala euskara etxean jaso ez zuten beste irakasleei, ikasleei ez ezik.

Euskara ikasteari lotu nintzaion lehenbiziko urte haietan gauzak adierazteko gauza banintzen, neurri batean bederik, baina etxeko euskaldun baten gaitasunaren aldean hutsaren hurrengoa zen nirea, eta oraino hala da, eta sinetsirik eta etsirik nago gero ere hala izanen dela, beti. Hau da, nire ustez, Miquel Grosek (2007) bere liburu interesgarri eta bihotz emangarriaren

«ahulgunea», egun idatzi ohi den bezala erranda, edo «ahuldadea» nahiago baduzue, aipatzen den zenbaki bakoitzaren hizkuntza gaitasuna zenbateraino-koa den ez baita zehatz ageri. Erran nahi dut ez dela, hizkuntzari doakionez, berdin Lizarrako euskalduna izatea edo Leitzakoa, nahiz gero salbuespenak, ustekabeak eta kasu bereziak badiren, jakina.

Hemen Etxalekun, Sagrariok hitzaldian erran duen bezala, duela hamar-kada batzuetako haurrek gaztelaniaz ikasten zuten eskolan, baina euskara zen gero etxeko, karrikako, lagun arteko hizkera ohikoa. Orain, aldiz, haurrek –dauden gutxiak– euskaraz ikasten dute eskolan, baina erdaraz aritzen omen dira maizkara jostetan karrikan. Gure unibertsitatean –ez dakit xuxen besteetan zer gertatzen den– antzeko zerbait sumatzen da euskaraz ikasteko aukera duten ikasle urrien artean: herri euskaldunenetakoez (honetan ere mailak daude eta) euskaraz jardukitzen dute elkarrekin, eta ikastolan ikasi duten gutxi batzuek ere bai, nori berea aitortu behar baitzaio, baina gehienxkoenak erdaraz mintzatzen dira elkarren artean, klasean berean ere gaztelaniaz aritzen dira, gero euskara eta euskarazko irakasle izanen badira ere. Hau, jakina, lehenagotik heldu da, haurtzututik, eta nerabezutua iristearekin, institutuan, gauzak makurtu baizik ez dira egiten. Joera hau hizkuntza gaitasun askirik ez izateari leporatu behar zaio: etxean erdaraz hitz egiten dute, kalea mundu erdalduna da gehienendako eta, lagun artean, *en la gela, los ariketas, te voy a mandar un mezu* eta antzeko erdal gaiztoko esaldietan ageri diren «bitxi» horiek alde bat utzirik, ez dute gure hizkuntza deusetarako ibiltzen. Betikoan gaude: ez dute euskaraz hitz egiten gaitasun nahikorik ez dutelako, eta gaitasunik ez dute erdiesten euskaraz mintzatzen ez direlako. Nola atera gurgil zoro honetatik? Hor da gakoa.

Beste kontua, Sagrariok bere hitzaldian ukitu duena, Tolosako euskarak duen prestigioarena da; «publizista» ona omen dute bertan eta hortik hango euskararen ospe eta entzutea. Dena dela, Kike Amonarriz tolosarrak hitzaldi batean erran zuenez, bere gazte denborako herriko euskara arrunt polita eta arrunt ona zen, orbanik eta notarik gabea, gazteek –bera barne, nonbait– elkarrekin erdaraz hitz egiten zutelarik zikintzeko arriskurik ez zegoelako.

Nik ere anitzetan entzuna dut Nafarroako herrietan, batez ere adineko jendeari, Tolosako euskara dela euskararik ederrena, baina gaur egun, Iruñean, holako konturik ez dut aditzen gehiago. Bai ordea, eta Tolosan hitz horiek xeheki nola diren ez dakit, usu entzuten ditugu gure ikasleen ahotik *ondo* eta *hobeto* bezalakoak, hauek Nafarroan, muga-mugako herriren batean ez bada, ibiltzen ez diren arren. Hemen, jakina, *de facto*-ko euskara batuaren eragina dago, irrati-telebistena hain zuzen, eta irakaskuntzan lanean ari diren Nafarroaz kanpoko zenbait euskaldunek dituzten ohiturena ere bai. Nik, egia erran, ez dut deus ele horien kontra, eta ez nago, bestalde, Nafarroako erdialde zabalean ibiltzen ziren hizkeretara itzultzeko aiherrak, Bonapartek materialetan bildu zituenetara (Ondarra, 1982) edo Elkanoko Lizarragaren idazki jorietan ditugunetara, adibidez, besteak beste, eta segur aski, holako nahas-mahas irenskaitza

sortuko genukeelako orain unibertsitatean, konparaziorako, eskola emateko tenorean *emen zeude*, *erran zio utzi zezkien* «erran zion utz zitzan», *fite zoezi*, *adi zaze* edo *xataunt* «jaten dut»-en modukoak ibiltzen hasiko bagina.

Halarik ere, iruditzen zait gutxieneko batzuk ere errespetatu eta begiratu behar ditugula, eta *ongi* eta *hobeki* ibili, gorago aipatutako horien ordainez. Hortik aurrerakoak, *esan* ala *erran* erabili behar den, *anitz* ala *asko*, *aitzin* –*gibel* ala *aurre*– *atze*, *beste* ala *bertze*... norberaren esku gelditzen da, nork bere euskarari kutsu «kutsia» eman nahi dion edo aipaturikako euskara zuzen, zurrunkara horren bidetik ibili nahiago duen.

Nire irudiz nafarrok euskara batuari egin diezaiokegun ekarpenik handiena gure herrietan hain ugaria den, hainbeste ñabardura dituen hiztegiarekin aberastea da batetik, eta erranaireen, esamoldeen munduan sartzen diren esaldi egin baina ez erabat finkatu horiekin osatzea bestetik. Euskaltzainok, baita sartu berri-berriak diren azkenekoek ere, garbi dakusagu oraingo eta ondoko urteotako eginkizunik larrienetako bat hiztegi batua moldatzea dela eta, ezbairik gabe, eginbehar honetan, Imozko euskara, Sagrario etxean ikasi duen Etxalekuko hizkera garrantzi handikoa da, herria aski toki estrategikoan dagoelako, dialektologialariek (Ibarra, 1995; Hualde, 1997, Gaminde, 1998; Zuazo, 1998, 2003; Apalauza, 2008) nabarmendu duten bezala ekialdera eta erdialdera begira dauden ezaugarriak batzen diren gunean, edo, menturaz, egokiagoa izanen da erratea bereizten diren lekuan dagoela.

Imotz osoa ere ez da, oker ez banago, berdin-berdina alderdi guztietarik, eta hemen Muskitzen berezitasuna azpimarratu beharra dago, Imozko beste herrien aldean, azentuari eta beste ezaugarri batzuei dagokienez, baina nik ez dakit hiztegi kontuetan ere holako aldea hautematen den herri honetatik Imozko beste herrietara. Hori dialektologialariek-eta argitu beharko digute, eta, egia erran, ez daude zango bat bestearen gainean denbora nola emanen. Golaratz, berriz, fonologiaren aldetik bereizten omen da beste herrietatik (Apalauza, 2008).

Oraingo nafar euskaltzainok, eleka ari den Uxueko euskaldun berri honez landara, Sagrario une batez alde bat uzten badugu, Akademian sartu diren hurrenkera errespetatuz, Arizkungo Pello Salaburu, Leitzako Patxi Zabaleta eta Iturengo Andres Iñigo dira. Ikusten den bezala, Iruñeritik aski urrunekoak denak, eta Iruñearen eta Iruñerriaren garrantzia, beste hiri batzuen bezala, euskararen garapenean handia izan dela ez dago zalantzarik, hiriburuko euskara bera nolako zen ongi ez badakigu ere (Camino, 1999, 2003). Horregatik, iruditzen zait Sagrarioen ekarpena, hiztegi batua apailatzean etxean ikasitako hitzak sartzea alegia, biziki garrantzizkoa dela euskararendako eta Nafarroarendako, irudi baitu Imotz alderdi hau, hein batez bederen, Iruñerriarekin edo Iruñerriaren iparraldeko zendea eta ibarrekin zegoela loturik hiztegiaren aldetik, eta, beraz, Imozko hitzei sarbidea ematea erdararen bulkadaren aitzinean lekuak hustu behar izan zituen hizkerari sarbidea ematea dela, neurri batean.

Egia erran behar badut, ni hasia naiz dagoeneko Sagrariok barnean duen altxor lexiko hori baliatzen edo baliatu nahian: Juan Joxe Zubiri ene lankidearekin batean argitaratu *Biraoak* liburuan Sagrariok emanikako Etxalekuko madarikazio edo irainaireen zerrenda sartu nuen, gehienak, espero izatekoa zenez, beste leku anitzetan ere ezagunak direnak, hala nola *ahoberoa*, *aldrebesa*, *artopila*, *astakiloa*, *astopitua*, *atsomotza* edo *atsopotoka* «emakume ttiki lodikotea», *aztalzikina*, *barrabilaundia*, *begiezkela*, *burugabea*, *enborra*, *erdzua*, *expantua* edo *expantuaundia*, *gibelaundia*, *hankamehea*, *hortzamaketsa*, *kimaluze* edo *kimazua*, *muturbeltza*, *muturzorrotza*, *oilanda*, *ongabea*, *purtxila* eta hauen moduko beste harribitxi batzuk.

Badira, horiekin batean, Nafarroan segurik hain hedaturik ez dauden beste zenbait biraoaire, bakarrik Etxalekun bildu ditugunak, nahiz segur aski Imozko beste herrietan eta inguruko ibarretan ere erabiltzen diren: *buztangorria* «nesketan aritzeko beti prest egoten dena», *galtxagorria* «gaiztoa», *puzkilde* eta *puzkilderua* «latosoa» edo, *karrapizta* (ez dago urrun Iparraldeko *kalapita*-tik, adieraz eta formaz, eta arrunt hurbil dago Leitza aldeko *karramista*-tik), *kidailuze* «gorputza bi makilen gainean duela dirudien pertsona», *oilopelaturia* «ergela», *satitsua* «betaurreko kristal lodi-lodiak erabiltzen dituen edo ikusezinean eta baldar samar ibiltzen dena», *supilmotz* «sudurmotza» mespretxuz mintzatuz, *sustopila* «tontotua, mantso-mantso dabilena», eta abar.

Gure herrietako hizkera, arlo anitzetan, jendeak uste duen baino aberatsagoa da eta zuzen eta egokiro biltzea ez da aise; horretarako lekuan lekuko jende prestatua behar da, eta Sagrario, alderdi horretatik, egoera ezin hobean dago bere inguruko altxor hori, berak etxean eta herrian ikasi duena, hiztegi batuan eta bestelako lexiko lanetan txertatzeko. Bestalde, euskara helduei irakastea ere garrantzizkoa izan da azken hamarkadetan eta garrantzizkoa izanen da ondokoetan, eta seguru nago eremu honetan ere Sagrarioren lana ezinbestekoa izanen dela bi «akademietan», Euskaltzaindian eta Arturo Campionen, gure hizkuntza irakatsi eta sustatzeko zereginetan, erakutsi, hobetu, prestatu eta gaurkotu ez ezik sustatu ere egin behar baita, Nafarroan bereziki. Beraz, Sagrario, eta bukatzeko, izan zaitetz ongi etorria Euskaltzaindira eta urte askotarako izan dadila.

## BIBLIOGRAFIA

- APALAUZA, A., 2008, «Nafarroako ipar-mendebaldeko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu», *FLV* 107, 63-104.
- CAMINO, I., 1999, «Goñerriko hizkera (I)», *ASJU* 33-1, 5-78.
- , 2003, *Hego-Nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- GAMINDE, I., 1998, «Nafarroako azentu ereduen sailkapena», *Nafarroako Hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, I. Camino arg., UEU, 23-48.

- GROS, M., 2007, *Recuperación del Euskera en Navarra*, Jagon bilduma 2, Euskaltzaindia, Bilbo.
- HUALDE, J. I., 1997, *Euskararen azentuerak*, ASJU-ren gehigarriak 42, Gipuzkoako Foru Aldundia & Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia-Bilbo.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Morentin.
- SALABERRI, P. & ZUBIRI, J. J., 2007, *Biraoak. Nafarroan bilduak*, Pamiela, Iruñea.
- ZUAZO, K., 1998, «Nafarroako euskal hizkerak», *Nafarroako Hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, I. Camino arg., UEU, 1-22.
- , 2003, *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.



## **AMAIERA HITZAK**

*Juan Manuel Facenda,  
Etxalekuko alkatea*

Euskaltzainburua eta euskaltzainak,  
jaun-andreok,  
herritarrak eta euskaltzaleak.

Sagrario Aleman Euskaltzaindian sartzeko ekitaldi solemne honi akabera ematea egokitu zait niri. Sagrarioren balioa, merituak eta jokabidea goraipatu dira. Omenaldia egin diogu, gogotik txalotu. Nik, Etxalekuko kontzejuburua naizen aldetik, gauza bakarra adierazi nahi dut nire eta herritar guztien izenean: asko estimatzen eta baloratzen dugula. Bestetik, kanpoan ospakizunari segida emateko gonbidapena egiten dizuet, kontzejuak jateko eta edateko zerbait prestatu baitu ekitaldi honi bukaera emateko.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet eraikuntza dotore honen jabeai, Josefa eta Doris Schneiderri, ekitaldi honetarako uzteko adeitasuna eta esku-zabaltasuna izategatik. Eskerrik asko benetan.

Eskerrik asko Sagrario Alemanen ondoan egoteko hona etorri zareten guztioi. Egun ederra opa dizuei denei.